

Azaroaren 5ean, arrastiko **18:00retan Gazteria** arloko batzarrari hasiera eman zaio, gaztetxean. (7 pertsona, 5 gazte- 3 zinegotzi)

Lehenengo eta behin orain arteko eskarien jarraipena egingo da.

Gaien jarraipenak, orain arte eskatutakoak:

- Udalak bitartekaritza lanak egitea
- Gaztetxeko gastuak gazteriako partidatik bideratzeko aukera aztertzea. Lokal honen hobekuntzak estrategikoki egitea ikusi daiteke.
- Gaztetxetik teknikari bat pasatzea aurreikusten da lokal hau segurua izateko zer behar den esan dezan.
- Lokalero eguna berriro egitea, beste planteamendu batekin, lokalik ez duten kuadrilak be parte hartu ahal izateko.
- Kuadrilen arteko ekimenak indartzea, harremanak hobetzeko.
- Batukadako irakaslea ordaintzea. Planteatzea egoki ikusten da, baina beharbada kultura arlotik.
- Plangintza bat danon artean. Kiñu, gazteria, udala... Koordinazioa denon artean.
- Gaztetxearen insonorizazioa
- Ekintzetarako dirulaguntzak: materiala, ikastaroa, irakasleak, tallerrak, batukada
- Gaztetxean martxan dagoen zirko taldean materiala erosteko dirulaguntza
- Soinu ekipoa erosteko dirulaguntza, bigarren eskukoa. Alokairuan hartzen dute orain arte
- Proiektore bat
- Elkarte moduan dirulaguntzen eskaera egitea.
- Kulturetxeko hainbat ikastaro garestiegiak
- Boulderra hobetu: horretarako udalak zigorrak aurreikusten dauzen ordenantza bat atera dau.
- Ortu sozialak, martxan daude gestioak, lurak begira hari da udala. San Juan, eskola inguruak...
- Bidegorriak jartzeko aukera aztertzea. Igorre arantzazu orobitik, bide bakarreko bihurtzea planteatzen da, bizikleta karrila ipintzeko.
- Txosna bat erostea planteatu zen. Udalak txosna bat erosiko balu, erabilgarria izango litzateke auzo eta elkarte ezberdinek erabili dezaten.

Eskaerak:

- **Gaztelekua:** Erabilera anitzeko aisigunea. Zein dan asmoa eta nola dagoen gaur egun proiektua galdetu da. Proiektuaren erredakzinoa eskatuta dago. Behin proiektua izanda, interesatu guztiak biltzea aurreikusten da (maratu, ludoteka, elkarteak...), ekarpenak egiteko.
- **Boulderrean komunak:** aldatzeko eta beharrianak egiteko. Frontoi azpiko komunak zabaltzea egokia litzateke